



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)

31745

Jose Maria Alzuri Vertiz
Maria Larretxea Echeverria
Pedro Francisco Mindegua Elizalde
Miren Ilarregui Belarra
Ainhua Bereau Altxu
Arkaitz Mindegia Baleztena

2025eko irailaren 2an, 16:00ak direnean, ohiko osoko bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Francisco Javier Bereau Miquelarena —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Izaskun Mielgo Rey. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

Iturengo udalak uztairalen bukaeran Abo Energy enpresaren bilera eskaera jaso zuen. Bileran enpresak azaldu zuenez Mendaurren eta Solano alderdian bost aerogeneradoreak jartzeko intentzio azaldu zuten eta horren planoa eman zuten. Udalak Mendaurren aldea babestuta dagoela erantzun zion.

Iturengo udalak, bandoa banatu zuen herritarrek 2025eko abuztuaren 11an herri bilera deitzen, bileran esandakoa azaltzeko.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

- Iturenen gaur egunean indarrean dagoen Hirigintza Plan Orokorrean Mendaurren alderdia babestuta dago.
- Iturenen Behin behineko onarpena jaso duen Hirigintza Plan Orokorrean tontor guztietan parke eolikoak jartzeko debekua sartu da.
- Iturengo udalaren jarrera argi geratu da HPOan Orokorrean tontor guztietan parke eolikoak jartzeko debekua sartuz. Hala ere, beti herriaren hitza kontutan hartuko da.

Eta bertzerik ezean, 16:30ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.